

2025
URTARRILA-EKAINA

Prestakuntza- Jardueren Programa



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE NAVARRA
NAFARROAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA

NAVARRA · NAFARROA

Prestakuntza-Jardueren Programa

Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialak prestakuntza-proposamen berria aurkezten du 2025eko lehen seihilekorako. Haren bidez, denboran zehar eta planifikazioaren aurreko urteko galdetegiaren bidez bidali dizkiguzuen iradokizunak jasotzen saiatu gara, formatuaren eta edukien ingurukoak.

Etengabeko prestakuntza askotarikoa, malgua eta egoera pertsonaletara moldagarria izateko eskaera gero eta handiagoa denez, prestakuntza-plan bat diseinatu dugu, hiru talde nagusiren beharrei erantzuteko:

- Enplegua modu aktiboan bilatzen ari diren pertsonak.
- Etengabeko prestakuntzan eta garapen profesionalean interesa duten pertsonak.
- Oposizioak prestatzen ari diren pertsonak.

Proposamen horien helburua da tresna praktikoa eta esanguratsuak eskaintzea kolektibo bakoitzari bere helburuekin laguntzeko.

Prestakuntza-eskaintza honez gain, gogorarazi nahi dizuegu beste proposamen batzuk ere egin ditzakezuela prestakuntza osatzeko, Gizarte Laneko beste elkargo profesional batzuek eta Gizarte Laneko Kontseilu Nagusiak antolatutakoak, zehazki. Proposamen horiek gure sare sozialen eta/edo asteroko buletinaren bidez zabaltzen ditugu.

1.

ENPLEGUA MODU AKTIBOAN BILATZEA

- **ENPLEGUA BILATZEA ETA IRTENBIDE PROFESIONALAK GIZARTE LANEAN**
CRISTINA LOPES
2 Ordu
ONLINE
OTSAILA 2025
- **HAUTAPENERAKO ELKARRIZKETAK. NOLA PRESTATU ELKARRIZKETA ETA ARRAKASTA IZAN**
CRISTINA LOPES
6 Ordu
AURREZ AURRE
MARTXOA 2025

2.

GARAPEN PROFESIONALA

- **MONOGRAFIKOAK: KULTURARTEKO BITARTEKARITZARAKO GAKO KULTURALAK**
NAFARROAKO GURUTZE GORRIA
2 Ordu
MONOGRAFIOA (AURREZ AURREKOA EDO ONLINE)
MARTXOA 2025
- **GIZARTE LANA LARRIALDIETAN (OINARRIZKOA)**
GIZARTE LANEKO KONTSEILU NAGUSIA
30 Ordu
ONLINE
MARTXOA 2025
- **NAFARROAKO OSASUN MENTALEKO SAREKO DISPOSITIBOAK ETA BALIABIDE SOZIOSANITARIOAK. GIZARTE LANEKO ZERBITZUAK**
GLORIA ELGORRIAGA
3 Ordu
AURREZ AURRE
MAIATZA 2025
- **LIZITAZIOETAN ETA DIRULAGUNTZETAN GIZARTE-PROIEKTUAK EGITEA (2. EDIZIOA)**
DAVID EXPÓSITO ETA EDUARDO GUTIÉRREZ
30 Ordu
ONLINE
MAIATZA 2025
- **PERTSONA ERDIGUNEAN JARTZEN DUEN ARRETA-EREDUA**
VINCORE
15 Ordu
AURREZ AURRE
EKAINA 2025

3.

OPOSIZIOAK

- **KASU PRAKTIKOAK. 2025EKO NAFARROAKO GOBERNUAREN OPOSIZIOARI BURUZKO SAIO BEREZIA**
BERTA A. MONEO ETA FRANCISCO JAVIER DE MIGUEL
3 Ordu
ONLINE
APIRILA 2025

(*) OHAR ARGIGARRIAK

ENPLEGUA MODU AKTIBOAN BILATZEA

1

“Enplegua bilatzea eta irtenbide profesionalak Gizarte Lanean”

CRISTINA LOPES

ONLINE ZUZENEAN

2 ORDU

GUTXIENEZ:

10 pertsona.

DATA:

2025eko otsailak 25

ORDUA:

17:00-19:00

IZENA EMATEKO EPEA:

2025eko otsailak 18

PREZIOA:

6 € Elkargokideek edo kolegiatu aurreko Gizarte Langintzako ikasleek.

15 € Elkargoko kide ez direnek.



Lana bilatzea, berez, lana da. Behar bezala prestatzeko, oinarrizko hauek ezagutu behar dira: xede-erakundeak, espezializazioak, aukerak, tresnak eta lan-helburuetan arrakasta lortzeko modu egokienak.

Prestakuntza honek zeregin horri lotutako funtsezko alderdiak jorratzen.



+Info



Izen-ematea

ENPLEGUA MODU AKTIBOAN BILATZEA

2

“Hautapenerako elkarrizketak. Nola prestatu elkarrizketa eta arrakasta izan”

CRISTINA LOPES

AURREZ AURRE

6 ORDU

TOKIA: COTSN

GUTXIENEZ-GEHIENEZ:

5-10 pertsona.

DATAK:

1. SAIOA: 2025 martxoak 18
2. SAIOA: 2025 martxoak 3
3. SAIOA: 2025 apirila 1

ORDUA:

17:00-19:00.

IZENA EMATEKO EPEA:

2025eko martxoak 11

PREZIOA:

36 € Elkargokideek edo kolegiatu aurreko Gizarte Langintzako ikasleek.

90 € Elkargoko kide ez direnek.



Elkarrizketa da hautaketa-prozesuaren azken urratsa. Une horrek guztiz baldintzatzen du hautatzaileak elkarrizketatuarengandik jasotzen duen inpresioa. 15'-20' nahikoa dira interes-maila, gaitasuna, trebetasuna... baloratzeko.

Elkarrizketara prestatu gabe joateak axolagabekeria eta interes falta erakusten du, eta hautaketa-profesionalek profil horiek baztertzen dituzte. Prestaketa onak emaitza egokia bermatzen du. Eta, dena bezala, ondo egiten jakin behar da...

 **+info**

 **Izen-ematea**

GARAPEN PROFESIONALA

1

“Monografikoak: Kulturarteko Bitartekaritzarako gako kulturalak”

NAFARROAKO GURUTZE
GORRIA

AURREZ AURRE ETA
ONLINE ZUZENEAN

2 ORDU MONOGRAFIKO
BAKOITZEKO

TOKIA: COTSN

GUTXIENEZ-GEHIENEZ:

10-20 pertsona monografiko
bakoitzeko.

DATAK:

2025/03/10: Magrebi
buruzko monografikoa.

2025/03/11: Saharaz
hegoaldeko Afrikari buruzko
monografikoa.

2025/03/12: Iberoamerikari
buruzko monografikoa.

2025/03/13: Ekialdeko
herrialdeei buruzko
monografikoa: Bulgaria.

2025/03/14: Ekialdeko
herrialdeei buruzko
monografikoa: Errumania-
Moldavia.

ORDUA:

10:00-12:00



IZENA EMATEKO EPEA:

2025eko otsailak 20

PREZIOA:

Doakoa. Nafarroako
Gobernuak diruz
lagundutako jarduera.

Prestakuntza honek
Magrebeko, Saharaz
hegoaldeko Afrikako,
Iberoamerikako, ekialdeko
herrialdeetako, oro har, eta,
bereziki, Bulgaria, Errumania
eta Moldaviako kulturen
ezaugarri diren gako eta
elementuen berri emango da.

Beharrezkoa da haiek
ezagutzea kultura-interakzio
positiboa eta kulturarteko
komunikazio optimoa

lortzeko, eta, hala, izan
daitezkeen gatazka edo
talka kulturalak kudeatzen
laguntzeko.

Kultura Aniztasunari buruzko
2001eko Adierazpen
Unibertsalean jasotako
kulturen definiziotik
abiatuko gara: “*gizarte bat
edo gizarte-talde bat bereizten
duten ezaugarri espiritual
eta materialen, intelektualen
eta afektiboen multzotzat
hartu behar da kultura;
gainera, multzo horrek, arte
eta letrez gain, bizimoduak,
elkarrekin bizitzeko modua,
balio-sistemak, tradizioak eta
sinesmenak barne hartzen ditu*”.



+info



Izen-ematea

GARAPEN PROFESIONALA

2

“Larrialdi-egoeretako arreta Gizarte Lanetik (Oinarrizkoa)”

GIZARTE LANEKO KONTSEILU NAGUSIA

ONLINE

30 ORDU

24 ordu asinkroniko,
6 ordu sinkroniko.

GUTXIENEZ:

10 pertsona.

DATAK:

1. SAIOA: 2025 martxoak 6
2. SAIOA: 2025 martxoak 13
3. SAIOA: 2025 martxoak 20
4. SAIOA: 2025 martxoak 27

ORDUA:

17:00-18:30

IZENA EMATEKO EPEA:

2025eko otsailak 24

PREZIOA:

Doakoa. Elkargoak finantzatua. Lehenetasuna izango dute larrialdi-taldeko zerrendan izena eman duten elkargokideek.



Ikastaro honen helburu orokorra da gizarte-langileei erakustea gizarte-larrialdiko ezohiko egoeretan nola joka dezaketen erakustea da, bertan jarduten duten eragileen artean koordinatuta.

Ikastaroak gizarte-langileak larrialdi-testuinguruetan esku hartzeko metodologian trebatuko ditu, eta, horrekin batera, esku-hartze

psikosozialeko optika eta biktimei laguntza aktiboa emateko tresna erabilgarriak eskuratuko ditu.



+info



Izen-ematea

GARAPEN PROFESIONALA

3

“Nafarroako Osasun Mentaleko Sareko dispositiboak eta baliabide soziosanitarioak. Gizarte Laneko Zerbitzuak”

GLORIA ELGORRIAGA



AURREZ AURRE

3 ORDU

GUTXIENEZ-GEHIENEZ:

10-20 pertsona.

DATA:

2025eko maiatzak 15

ORDUA:

17:00-20:00

IZENA EMATEKO EPEA:

2025eko apirilak 30

PREZIOA:

9 € Elkargokideek edo kolegiatu aurreko Gizarte Langintzako ikasleek.

22,5 € Elkargoko kide ez direnek.

2019-2023 Nafarroako Osasun Mentaleko hirugarren Planak lau jarduera ditu ardatz:

- Eredu komunitarioa indartzea
- Detekzio eta esku-hartze goiztiarra
- Arreta-aldakortasuna murriztea
- Pertsona erdigunean jartzen duen arreta

Bestalde, Osasun Sistema Nazionalaren Osasun Mentaleko Estrategiak, 2022-2026 aldirako, jarduera-ardatz horiek zabaltzen ditu. Ordenamendu juridikoan egondako aldaketek gaixotasun mentala duen pertsona eskubidedun eta partaidetzako subjektu gisa kokatzen dute, haien familiak barne, eta genero-ikuspegia eta berreskuratze pertsonala

prozesu pertsonalizatu gisa integratzen dute. Asistentziari eta zainketei jarraipena emateko beharra ere aipatzen dute, eta elkarrizketa eta entzute aktiboa funtsezko elementu gisa aurkezten dituzte, bai harreman terapeutikoetan, bai osasun mentaleko esku-hartzean.

Erreferentzia-esparru horren barruan, dimentsio soziosanitarioa gero eta sendoagoa da. Osasun mentaleko gaitzak dituzten pertsonen eta haien familiei behar duten laguntza emateko, sailen eta departamentuen arteko erantzunkidetasuna ezinbestekoa da.



+info



Izen-ematea

GARAPEN PROFESIONALA

4

“Lizitazioetan eta dirulaguntzetan gizarte-proiektuak egitea (2. Edizioa)”

DAVID EXPÓSITO ETA
EDUARDO GUTIÉRREZ

ONLINE

30 ORDU

18 ordu sinkroniko
12 ordu asinkroniko.

GUTXIENEZ-GEHIENEZ:

10-20 pertsona.

DATAK:

1. SAIOA: 2025 maiatzak 16.
2. SAIOA: 2025 maiatzak 17.
3. SAIOA: 2025 maiatzak 23.
4. SAIOA: 2025 maiatzak 24.
5. SAIOA: 2025 maiatzak 30.
6. SAIOA: 2025 maiatzak 31.

ORDUA:

Ostiralak: 17:00-20:00
Larunbatak: 10:00-13:00

IZENA EMATEKO EPEA:

2025eko maiatzak 2

PREZIOA:

50 € Elkargokideek edo kolegiatu aurreko Gizarte Langintzako ikasleek.

125 € Elkargoko kide ez direnek.



Gizarte-proiektu bat egiteko ideia bati forma eman behar diozunean, erakunde zein enpresatik lan egiten dugunean, edota noraberaren ekimenez zein ekintzailertzagatik denean, baliteke blokeoak eta zailtasunak aurkitzea. Gainera, esparru akademikoan, oso gutxitan prestatzen dituzte etorkizuneko profesionalak esparru horretan. Proiektu bat aurkezteko prozesuan akatsik ez egiteaz gain (legeak, faseak eta abar kontuan hartuta), formulazio egokia egiteko beharrezko urrats guztiak ezagutu behar

ditugu, azken produktua kalitatezkoa, argia eta koherentea izan dadin.

Prestakuntza horren bidez, gizarte-ekintzaren eta esku-hartzearen arloko profesionalak trebatu nahi dira, gizarte-proiektu bat bermekin aurkezteko behar diren ezagutzak izan ditzaten; horretarako, puzzlea osatzen jakin behar da. Hemen pieza guztiak emango dizkizugu.



+info



Izen-ematea

GARAPEN PROFESIONALA

5

“Pertsona erdigunean jartzen duen arreta-eredua, Gizarte Langintza eta Gerontologia”

VINCORE

AURREZ AURRE

15 ORDU

GUTXIENEZ-GEHIENEZ:

10-18 pertsona.

TOKIA: COTSN

DATAK ETA ORDUTEGIAK:

1. SAIOA: 2025 ekainak 6, ostirala. 16:30-20:00
2. SAIOA: 2025 ekainak 7, larunbata. 10:00-14:00
3. SAIOA: 2025 ekainak 20, ostirala. 16:30-20:00
4. SAIOA: 2025 ekainak 21, larunbata. 10:00-14:00.

IZENA EMATEKO EPEA:

2025eko maiatzaren 28

PREZIOA:

69 € Elkargokideek edo kolegiatu aurreko Gizarte Langintzako ikasleek.

172,5 € Elkargoko kide ez direnek.



Pertsona Erdigunean jartzen duen Arreta (PEA), Pertsonarentzat Garrantzitsua dena Erdigunean jartzen duen Arreta (PGEA)... antzekotasunak? Desberdintasunak? Zertaz ari gara pertsona erdigunean jartzen duen arreta nabarmentzen dugunean? Paradigma bat da ala eredu bat?

Prestakuntza-proposamena pertsona erdigunean jartzen

duen arretaren gaineko hausnarketa, azterketa eta identifikaziorako espazio batean oinarritzen da, ikuspegi teoriko-praktiko batetik; izan ere, gizarte-lanaren praktikatik aplikatu daitezkeen estrategiak ematea bilatzen du.



+info



Izen-ematea

OPOSIZIOAK

1

“Kasu praktikoak. 2025eko Nafarroako Gobernuaren oposizioei buruzko saio berezia”

BERTA A. MONEO ETA FRANCISCO JAVIER DE MIGUEL

ONLINE

3 ORDU

GUTXIENEZ-GEHIENEZ:
10-21 pertsona.


TOKIA: COTSN

DATA:
2025eko apirilak 12

ORDUA:
9:00-12:00

IZENA EMATEKO EPEA:
2025eko apirilaren 2

PREZIOA:
12 € Elkargokideek edo kolegiatu aurreko Gizarte Langintzako ikasleek.
30 € Elkargoko kide ez direnek.



Gizarte Langintzaren Elkargoaren prestakuntza-planaren esparruan, prestakuntza-ekintza berezi bat diseinatu dute, elkargokideei Nafarroako Gobernuaren oposizioko test motako proba praktikoa prestatzeko. Online saio honek kasu praktikoan ebazpenean jarriko du arreta, azterketaren formatua simulatuz, ikaskuntza optimizatzen eta proba honi aurre egiteko gaitasuna indartzeko.

Saioan zehar, test modalitatera egokitutako

kasu praktikoak jorratuko dira; horrela, parte-hartzaileei aukera emango zaie azterketaren egiturarekin ohitzeko eta hura behar bezala ebazteko beharrezkoak diren funtsezko gaitasunak lantzeko. Gainera, denbora kudeatzeko eta proban zehar erabaki egokiak hartzeko tresnak eta estrategiak emango dira.



Izen-ematea

(*)

OHAR ARGIGARRIAK

PRESTAKUNTZAREN IZEN-EMATEEI, ORDAINKETARI ETA ITZULKETEI BURUZKO OHAR ARGIGARRIAK:

- **Izena ematea:** erabili eskainitako proposamen bakoitzerako emandako formularioak.
- Izena eman duten pertsonen kopurua dagoen plaza-kopurua baino handiagoa bada, **plazak esleitzeko irizpide** hauek kontuan hartuko dira:
 1. COTSN/NGLEOko kideak.
 2. Gizarte Laneko beste elkargo profesional batzuetan kolegiatutakoak.
 3. Gizarte Laneko ikasleak.
 4. Kolegiatu gabekoak.Eta irizpide hori kontuan hartuta, izena emateko ordena lehenetsiko da.
- Norbait erregistratu, baina azkenean ezin badu izena eman duen prestakuntzara joan, **hasi baino lehen betiere**, ahalik eta azkarren jakinarazi behar du, prestakuntza-ikastaroa edo -jarduera zenbat jendek egingo duen zehatz-mehatz jakiteko, eta beste pertsonen eskaerei baietz ala ezetz esan ahal izateko.
- **Prestakuntza kobratu ondoren** norbaitek baja ematen badu **hasi aurretik**, ORDAINDUTAKOAREN % 75 ITZULIKO ZAIO.
- **Prestakuntza kobratu ondoren** norbaitek baja ematen badu **hasi ondoren**, EZ ZAIO EZER ITZULIKO.

GOGORATU!!!

Elkargoak, 2025. urterako, prestakuntza-ekintzen kostuaren **% 60 kofinantzatuko** du.



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE NAVARRA
NAFARROAKO GIZATZE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA
NAVARRA · NAFARROA

www.trabajosocialnavarra.org

Calle Irunlarrea, 54 – bajo • 31008 Pamplona • Iruñea Navarra / Tlf.: 948 240 401